



6/2017 AKTA

2017ko uztailearen 18an, 10:00etan, Vitoria-Gasteizen elkartu zen **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen osoko bilkura**. Konexio telematikoz jardun zuten Koldobike Uriarte kidearekin, aurretik deialdia egin baitzen, eta gai-zerrenda hau jorratu zuten:

1. Aurreko bileraren akta (5/2017 akta) irakurtzea eta onartzea.
2. Esleitutako espedienteen ebazpen-proposamenak egitea, eta oraindik ebatzi ezin daitezkeen espedienteen egoeraren berri ematea.
3. Galde-eskeak

PRESIDENTEA:

Javier Bikandi Irazabal jauna

KIDEAK:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Ana Arkotxa Azkue andrea

IDAZKARIA:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

1.- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.

Batzordearen 2017ko ekainaren 10eko bileraren akta irakurri da, eta aho batez onartu. Ondoren, parte-hartzaileek sinatu egin dute.

2.- 2017-000049 espedientearen ebazpen-proposamena.

Gero, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidentek. Proposamena aurretik bidali zen, batzordeko kideek azter zezaten. Berori aztertu ondoren, Batzordearen 12/2017 Ebazpen gisa onartu da, aho batez. Bestetik, ebazpen berezia edo horri dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ebatzi ondoren gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzko Legearen sarbidetako eskubidea eskatu ahal izango duela jakinaraziko diote kexagileari.

3.- 2017-000050 espedientearen ebazpen-proposamena.



Gero, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidenteak. Proposamena aurretik bidali zen, batzordeko kideek azter zezaten. Berori aztertu ondoren, eskatu den informazioaren izaerari buruz eztabaidatu da, eta gehiengoak onartu du, Batzordearen 13/2017 Ebazpen gisa.

4.- 2017-000051 espedientearen ebazpen-proposamena.

Gero, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidenteak. Proposamena aurretik bidali zen, batzordeko kideek azter zezaten. Berori aztertu ondoren, aho batez onartu da, 14/2017 Ebazpen gisa.

5.- 2017-000052 espedientearen ebazpen-proposamena.

Gero, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidenteak. Proposamena aurretik bidali zen, batzordeko kideek azter zezaten. Berori aztertu ondoren, aho batez onartu da, 15/2017 Ebazpen gisa. Kexagilearen nortasuna egiaztatzea falta da.

6.- 2017/000055 espedientearen egoera

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Funtzio Publikoko Zuzendaritzak Batzordeari bidali zion espediente hori; izan ere, eskatzaileei ez zitzaenez erantzun informaziorako lehenengo sarbide-eskaera (2017ko apirilaren 27ko eskaera) egin zutenean, eta berriro egin zutenez eskaera (ekainaren 9an), erreklamazio hori Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak bideratu behar zuela balioetsi zen.

Alabaina, Batzordearen ustez, kontsulta egin behar zaie eskatzaileei, zaila baita beren eskaeraren xedea edo xedeak zein diren argitzea. Beraz, idazki bat bidali zitzaie uztailaren 14an, eta, bertan, baliodun 10 eguneko epea eman zitzaie informazio publikorako sarbidea ukatu izanagatik erreklamazioa edo epean erantzun ez zen hasierako eskaeraren errepikapena ote zen argitu zezaten.

2017ko uztailaren 17an, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak berriro jo zuen Batzordera, jakinaraziz eskaera ebatzi egin zela eta eskatutako informazioaren zati bat begiratzeko baimena eman zela, baina ukatu egin zela egiten ari den informazioaren eskaera. Eskaera horrek izaera laguntzailea dauka, eta, xede duen informazioa zabaldu ahal izateko, aurretik egin behar da berriro informazio hori. Hori dela-eta, eskatzaileen erantzunari itxaron behar zaio. Batzordeak adostu duenez, eskatzaileek adierazten baldin badute eskaeraren errepikapena dela, espedientea artxibatzea ebatziko da. Erantzunarekin ados ez badaude, berriz, erreklamaziorako



eskubidea erabil lezakete. Idazkiaren helburua erreklamaziorako eskubidea eskatzea bada, ordea, erreklamazioaren espediente bideratzea erabaki du batzordeak.

7.- 2017/000058 espedientearen egoera

Entzuteko izapiderako epea amaitzeko zain dago espediente hori, eta batzordearen hurrengo bileran ebatziko da, irail hasieran.

8.- Galde-eskeak

Koldobike Uriarte kideak jakinarazi du produkziara igo duela funtzionaltasun bat; hots, aurrez aurre (Zuzenean-eko bulegoetan edo ohiko postaz) jasotzen diren eta eskuz digitalizatu behar diren erreklamazioetan eskatzaileen nortasuna NANaren erregistroarekin elkarreraginean arituz automatikoki egiaztatzea ahalbidetzen duen funtzionaltasuna (nortasuna egiaztatzeko kontsulta). Beraz, hemendik aurrera aurrez aurre jasotzen den hurrengo eskaeran, ezarpen informatikoak automatikoki egingo du nortasunaren kontsulta, eta kexagileei ez zaie NANaren fotokopia eskatu beharko.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, beste bilera batera deitu ditu presidenteak. Irailaren lehenengo astean izango da, eta ebatzi gabe dauden erreklamazioak ebazteko xedea izango du. 11:00etan amaitu da saioa.

Idazkaria
Koldobike Uriarte

Presidente
Javier Bikandi

Kidea
Ana Arkotxa